

Johanes Inaxio Txoperena Zugarramurdi (1956-2021). In memoriam

Inaxio Txoperenaren proflean bi ezaugarri gailentzen dira beste guztien gainetik: irakaskuntzari zion maitasuna eta Arteari zion pasioa. Artearen Historiako irakasle izateak, beraz, bere jardunean bi profil hauek uztartzeko aukera eman zion. 1978an Geografia eta Historian lizentziatu zen Nafarroako Unibertsitatean, eta iada 1979an hasi zuen unibertsitateko irakasle ibilbidea OHOk irakasleen Formakuntzako Unibertsitate Eskolan hasi zelako lanean. Askok maite zuen bere ama hizkuntza irakasten zuen bertan, Euskara. 1980-1981 ikasturteetik aurrera Euskal Herriko Unibertsitateak hartu zuen zentru honen ardura Bilboko Magisteritza Eskola sortu zelarik, eta bertan hasi zituen Inaxiok Artearen Historiako irakaskuntza espezifikoa egin zituen urte guztiak. 1988an Unibertsitate-Eskola Titular bezala finkatu zen eta 1991an irakasle numerario postua lortu zuen.

Postu honekin sartu zen 1994an Artearen Historia eta Musikaren Sailean. Inaxiok egundainoko garrantzia izan zuen gure saila arduratzen zen irakaskuntzetan euskaraz emandako irakaskuntza sortu eta finkatzeko. Batez ere garrantzitsua izan zen bere irakaskuntza Artearen Historia lizentziaturan, urte haietan sortu berri baitzen Gasteizen euskaraz ematen ziren irakaskuntza oso gutxirekin. Gainera, Artearen Historiaren didaktikan espezializatuta egonik denbora-tarte handia irakasteko gai zen, eta Inaxioren gaitasun hori azpimarratu nahiko genuke, Saila asko aberastu baitzuen.

Leioako Arte Ederren Fakultatean Euskal Herriko Arte eta Artearen teoria irakatsi zuen Arte Ederretan lizenziatzen zirenei, eta geroko urteetan, graduko irakaskuntzak sortu zirenean, *Artearen Historia Orokorra* irakaskuntzaren arduraduna izan zen. Hiru gradutan irakasten zuen horrela: Arte, Sorkuntza eta Diseinua, eta Kultura Ondarearen Kontserbazio eta Zaharberritzea. Artearen Historiari buruz zeukan begirada zabal hura bereziki mesedegarria izan zen ikasle hautentzat, Inaxioren eskola sutsuak jarraituz Aurrehistoriatik hasi eta XX. mendera bitarteko arte produkzioaren gaineko ikuspuntu orokor bat osatzen zutelako.

Gasteizko Letren Fakultatera joan zen 1995-1996 ikasturtean, Artearen Historian lizentziatura ikasketetan arte garaikidea ematera, bere irakaskuntzaren ikasketak hauen euskal adarrari hasiera emanez. Geroko urteetan bestelako irakaskuntza eman zituen euskaraz gradu ikasketetan ere.

Johanes Inaxio Txoperena Zugarramurdi (1956-2021). In memoriam

En el perfil de Inaxio Txoperena hay dos aspectos que sobresalen sobre los demás: su amor por la docencia y su pasión por el Arte. Su trayectoria profesional como profesor de Historia del Arte le permitió unir estas dos facetas en una sola. Tras licenciarse en Geografía e Historia en la Universidad de Navarra en 1978, empezó su trayectoria como profesor universitario ya en 1979 en la Escuela Universitaria de Formación del Profesorado de EGB, impartiendo Euskera, su lengua materna. A partir del curso 1980-1981 la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea se hizo cargo de este centro fundando la Escuela de Formación de Profesorado de Bilbao, y allí es donde Inaxio Txoperena comenzó su docencia específica en Historia y Arte, formando en estos contenidos a los futuros profesionales de la enseñanza. Se consolidó como Titular de Escuela Universitaria en 1988 y se convirtió en numerario en 1991.

Con ese puesto entró a formar parte del Departamento de Historia del Arte y Música de la UPV/EHU en 1994. En nuestro departamento Inaxio ejerció un papel fundamental en la creación y afianzamiento de la línea de euskera de las enseñanzas que se impartían, especialmente en la licenciatura de Historia del Arte que apenas comenzaba su andadura en aquellos años. Su perfil profesional especializado en la didáctica de la Historia del Arte lo convertía en un docente que podía abarcar una amplia cronología, una importante competencia que enriqueció al Departamento y que debemos subrayar como uno de sus méritos más destacables.

En la Facultad de Bellas Artes de Leioa enseñó arte vasco y teoría del arte al alumnado de la antigua licenciatura de Bellas Artes. Después, con la implantación de las enseñanzas de grado, fue el responsable de la asignatura *Artearen Historia Orokorra* (Historia General del Arte), impartida en tres grados: Arte, Creación y Diseño y Conservación y Restauración de Bienes Culturales. Su amplia perspectiva cronológica fue especialmente útil y provechosa para los alumnos y las alumnas que seguían sus apasionadas clases, ya que les concedía un paisaje general de la creación artística desde la Prehistoria hasta el siglo XX, imprescindible en su formación.

Inaxiok bereziki maite eta gozatu zituen Bilboko Esperientzi Geletan eman zuen denbora. 2000 urtean 55 urtetik gorakoei zuzendutako unibertsitate-ikasketa hauen sorreraren lekuko bat izan zen, gogo biziz bertaratzen ziren ikaslegoari Artearen Historia irakasten egon baitzen. Badakigu gainera lehenbiziko promozioko ikasle haiek asko maite zutela Inaxio eta urteak pasa diren arren, 2001an berarekin Greziara egindako bidaia oraindik gogoratzen dutela. Erretiroa hartu baino urte batzuk lehenago berriz ere ikasgela berezi hauek bueltatzeko parada izan zuen. Askotan erakutsi zigun Esperientzi Geletan sentitzen zuen asebeta, eta ikasle hauek egiten zioten harrera beroa gozoz erantzuten zuen maitasunez prestatutako eskolekin.

35 urteko ibilbidearen ostean Inaxiok erretiroa hartu zuen 2016an. Artearen Historia eta Musikaren Sailak bere esker ona erakutsiko dio beti, irakaskuntzarekin izan duen konpromezu irmoagatik, bai eta zentru eta gradu ezberdinetan lan egiteko erakutsi zuen malgutasunagatik ere. Orain saileko kide diren lagun batzuk unibertsitate-formakuntzako urteetan Inaxioren ikasleak izandakoak dira. Haren klase bereziak gogoratzen ditugu, batez ere Artearen ezagutzarenganako maitasuna eta jakin-nahia pizten zigulako. Komunikatzeko zeukan gaitasun indartsua Artearekin sentitzen zituenak partekatzeko erabiltzen zuen, eta begirada zorrozten zigun heinean, begi aurrean jartzen zizkigun artelanetan erantzunak bilatzen laguntzen zigun. Edertasunaren etengabeko bilaketak eta artelangintza guztiaren aurrean zeukan sentikortasunak irakasle bikaina egiten zuten. Eskerrik asko guzti honengatik, Inaxio.

A la Facultad de Letras de Vitoria-Gasteiz acudió para enseñar arte contemporáneo al alumnado que estrenaba la licenciatura en Historia del Arte en el curso 1995-1996, inaugurando la línea de euskera de esta carrera. Años más tarde, ya en las enseñanzas de grado, siguió impartiendo varias asignaturas en euskera.

Una docencia especialmente querida y disfrutada por él fue la que ejerció en las Aulas de la Experiencia de Bilbao. En el 2000 fue testigo de la creación de esta línea de estudios universitarios orientados a personas mayores de 55 años, impartiendo Historia del Arte a un nutrido grupo de personas que acudía a sus clases con gran entusiasmo. Sabemos que el alumnado de aquellas primeras promociones aún recuerda con gran cariño tanto las lecciones de Inaxio como el viaje de estudios a Grecia que él guió en 2001. En los años previos a su jubilación tuvo la oportunidad de regresar a estas aulas. En numerosas ocasiones nos manifestó la satisfacción que sentía con la calurosa acogida de sus alumnos y alumnas, correspondiéndoles con un esmerado discurso.

Tras más de 35 años de trayectoria docente, Inaxio se jubiló en 2016. El Departamento de Historia del Arte y Música siempre le agradecerá su firme compromiso con la docencia y su flexibilidad para desarrollar su trabajo en múltiples centros y diversos grados. Varios miembros del Departamento hemos tenido la fortuna de haberle tenido como docente en nuestra formación universitaria. Le recordaremos porque en sus peculiares clases despertaba en su alumnado la curiosidad y el amor por el conocimiento. Sus buenas dotes comunicativas las orientaba a compartir lo que él sentía, a aguzar la mirada y a buscar respuestas en el Arte que nos invitaba a mirar. Su incansable búsqueda de la belleza y su gran sensibilidad para todas las creaciones artísticas hicieron de él un buen docente. Muchas gracias por todo esto, Inaxio.